

**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

**2013ko UZTAILAREN 24an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN  
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2013ko uztailaren 24an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.30 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Aritz Usandizaga Larrañaga  
Imanol Aranzabal Lasa

Bere ezin etorria azaltzen du: Karlos Irazu Muñoa, Gotzon Jauregi Sarasola, Igor Barandiaran Perez de Arriluzea eta Jon Tejeria Otermin

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:


- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio:  
- 2013ko uztailaren 4an egindako ohiko bilkura**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Tolosaldeko Mankomunitateari, 2013 urteko uztailetik-abendura egingo duen hiri hondakinen kudeaketa zerbitzuagatik diru ekarpena burutzea, hala bada.**
- 4. Fakturak eta ordainketak.**
- 5. Beste batzuk.**
- 6. Erregu, galderak eta mozioak.**

...//...

**LEHENENGO PUNTUA**

**ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.**

- ▣ 2013 urteko uztailaren 4ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### **BIGARREN PUNTUA** **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

17/2013 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 16koa, Larraulgo Udalari faktura elektronikoak egin eta bidali behar dizkioten guztientzat estandar eta baldintza tekniko uniformeak ezartzea, eta bidalketa egiteko prozedurak eta horretarako beharrezkoak diren zehaztapenak finkatzea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

### **HIRUGARREN PUNTUA** **TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEARI, 2013 URTEKO UZTAILETIK- ABENDURA EGINGO DUEN HIRI HONDAKINEN KUDEAKETA ZERBITZUAGATIK DIRU EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA**

Ikusirik Tolosaldeko Mankomunitateak igorritako faktura, 2013ko uztailaren 1ekoa, 2013 ekitaldirako hiri hondakinen kudeaketa zerbitzuagatik, uztailetik abendura bitartean izango dena, Tolosaldea Mankomunitateari egin beharreko faktura ordainketa burutu dezan eskaera egiten du, bere zenbatekoa 9.964,23 euro direlarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

#### ERABAKITZEN DU:


LEHENA: Tolosaldea Mankomunitateari, bigarren ekarpenaren ordainketa burutzea, hau da, 9.964,23 eurotako diru kopurua.

BIGARRENA: 9.964,23 eurotako gastua onestea.

### **LAUGARREN PUNTUA** **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

SASMAK	101,64
TOLOSALDEA GARATZEN	240,00
TOLOSALDEA GARATZEN	240,00
IHOBE	300,00
MANPEL	97,65
GALPARSORO	125,24



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

REPSOL BUTANO	204,36
REPSOL BUTANO	66,19
EUSKALTEL	2,93
MOVISTAR	77,39
MOVISTAR	20,56
MOVISTAR	134,73
MOVISTAR	18,87

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **1.629,56** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

### **BOSTGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

#### **5.1. SAN ESTEBAN JAIETAN POSTU BAT JARTZEKO BAIMENA ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik P.A. andreak eginiko eskaera, non azaltzen duen bisuteria saltzeko postu bat duela eta San Esteban festetan, aipaturiko postua jartzeko baimena eskaera egiten duen.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:


LEHENA: P.A. andreak eginiko eskaera onestu, hau da, San Esteban jaietan bisuteriako artikuluak saltzeko, postu bat jartzeko baimena ematea.

BIGARRENA: P.A. andreari jakinaraztea, Larraulgo Udaleko Alkatearekin, festaren hasieraren aurretik egon beharko duela, postuaren kokalekua zein izango den jakiteko.

HIRUGARRENA: Interesatuari erabaki honen berri ematea.

#### **5.2. SAN ESTEBAN JAIETAN POSTU BAT JARTZEKO BAIMENA ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik M.A.M. andreak eginiko eskaera, non azaltzen duen arropa, poltsak eta bisuteria saltzeko postu bat duela eta San Esteban festetan, aipaturiko postua jartzeko baimena eskaera egiten duen.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: M.A.M. andreak eginiko eskaera onestu, hau da, San Esteban jaietan arropa, poltsak eta bisuteriako artikuluak saltzeko, postu bat jartzeko baimena ematea.

BIGARRENA: M.A.M. andreari jakinaraztea, Larraulgo Udaleko Alkatearekin, festaren hasieraren aurretik egon beharko duela, postuaren kokalekua zein izango den jakiteko.

HIRUGARRENA: Interesaturi erabaki honen berri ematea.

### **5.3.2012-2013 IKASTURTERAKO EUSKARA IKASTAROETAKO DIRU-LAGUNTZEN ESKAERAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik Larraulgo Udalak 2013ko martxoaren 14an ospatutako ohiko Udalbatzarrean 2012-2013 ikasturterako Larraulgo biztanleentzat euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak onartu zituela.


Ikusirik apirilaren 30arteko epea finkatu zela diru-laguntza hauen eskaerak egiteko.

Ikusirik epe horren barruan hainbat eskaera aurkeztu direla, onartutako 2 , 3 eta 4 oinarriak betetzen dituztela, ondorengoak direlarik:

<b>IZEN ABIZENAK</b>	<b>JARDUERA</b>
I.S.G.	EUSKARA
F.A.O.	EUSKARA
P.P.S.	EUSKARA
J.G.A.	EUSKARA
A.N.L.	EUSKARA
M.A.R.	EUSKARA
N.E.J.	EUSKARA
A.M.G.	EUSKARA

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

### ERABAKITZEN DUTE



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENGOA.- 2012-2013 ikasturterako Larraulgo herritarrei Euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak onestea, diru-laguntza eskaturiko % 100 izango delarik.

BIGARRENA.- Diru-laguntzak arautzen dituzten 8. oinarriak dioenari jarraiki onartutako diru-laguntzaren ordainketa egiteko xede diren ekintza egitasmo edo helburuak bete direla justifikatzen denean, horretarako gastua burutu izanaren faktura eta agiriak aurkeztu beharko dira.

HIRUGARRENA.- 2013 urteko udal aurrekontuan kreditu nahikoa aurreikustea.

### **SEIGARREN PUNTUA**

### **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 19.55 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA